

argitalpena

'Hik Hasi' aldizkariak ikasliburuekin dauden arazoak aztertu ditu

Ikasliburuen inguruan Nafarroan sortu diren liskarrak dira *Hik Hasi* aldizkariaren gai nagusiaren mamia. Gertatuaren zergatiak, nolakotasunak eta hainbat ikuspegi azaltzen ditu aldizkariak, baita zenbait irakasleren iritzia ere. Bestalde, Mixel Etxeberry Seaskako lehendakariari egindako elkarrizketa ere jasotzen du, urriko alean.



aholkua

Oinetako-lokarriak luze iraun dezaten irtenbide bitxia

Sarri, oinetako-lokarriak zapaldu eta muturak hondatu egiten ditugu. Beti berriak erosten ez ibiltzeko, etxean bertan konpon ditzakegu, erraz asko: lokarri muturrak zinta eranskor gardenez bildu eta estaliko ditugu eta azkazaletarako berniz gardenez bustiko ditugu, aska ez daitezen. Bernizarekin soka-muturra gogortu egingo da.



BILBO. Joxe Mari Karrere ipuin kontalariaren jardunaldia. Gaur, goizeko 10:00etan eta 11:15ean, Begoña Barrutiko Udaltegia.

ERRETERIA. Haurrentzako jokoak eta ipuin kontaketa. Gaur, 18:00etatik 19:30era, Diputazio enparantzan (euria eginez gero, Koldo Mitxelena enparantzan). Ipuinak Nunilak kontatuko ditu. **Arazakeriari buruzko saioa.** Bihar, 20:00etan, Xenpelar Etxean, Nunilaren eskutik.

erakusketak

ARRATIA. 'Gorbeia, 100 urteko gurutzea'. Azaroaren 4a arte, Manu Egileor aretoan. Asteartetik larunbatera, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara ikusi ahal izango da; igande eta jai egunetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara.

BARAKALDO. Marrazki eta pintura erakusketa. Hilaren 30a arte ikusgai Erakusketa Udal Aretoan. Egileak: Mikel Sandor eta Ruslan Galazov. Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara, eta, 18:00etatik 21:00etara.

BILBO. Kantauri itsasoko hegaztien inguruko erakusketa. Azaroaren 5a arte, La Taberna de los Mundosen.

DONIBANE GARAZI. Argazki ibilaldiak. Urriaren amaiera arte egongo dira ikusgai Didier Sorbe, Alain Ceccaroli eta Jean Dieuzeide zenaren lanak, Apezpikuen Presondegian.

DONOSTIA. Tony Oursler. Azaroaren 17a arte, Koldo Mitxelena kulturunean, asteartetik larunbatera, 10:30etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:30etara.

Pasaiako badia, atzo, gaur eta bihar. Urriaren 28a arte zabalik, Kutxako Boulevard aretoan. Pasaia badiaren historia azalduko da.

DURANGO. 'Erretratuek 1949-1977'. Erakusketak azaroaren 4a arte iraungo du, Etxezarreta Jauregian.

GASTEIZ. '... Para comérsela'. Urte osoan, Montehermoso kulturguneko Jovellanos aretoan.

'N.Y. Selva de Contrastes'. Iban Kortazarren argazkiak ikusgai egongo dira, azaroaren 6a arte, Munduen tabernan.

IRUÑEA. Oleo eta marrazki

bestelakoa

Ipuin kontaketa. Gaur, Bilbon, Begoña Barrutiko Udaltegia (goizeko 10:00etan eta 11:15ean).

JOXE MARI KARRERE IPUIN KONTALARIA

Nekane Gonzalez | DONOSTIA

Izen-abizenak dituen ipuin kontalaria da Karrere. Bere istorioen bidez entzuleengan hamaika sentsazio sortzeko gai den gizona. Erdi-lo dagoen irudimena martxan jarri nahi duenak, gaur goizean du aukera, Bilbon.

■ **Zein motatako ipuinak kontatzen dituzu? Eta zein helbururekin?**

Denetarik. Batez ere, tradizionalk, baina autoreenak eta asmatutako bat edo beste ere bai. Helburua? Bada, entzuleek ondo pasatzea; euren sentsazioak piztea. Oro har, jendeak barnean duen irudimena martxan jartzea bilatzen dut eta horretarako, moderatzaile lanak egiten ditut. Ipuin motaren arabera, gauza bat edo beste espero dezaket, baina aurrean ez ditut altzariak nahi.

■ **Zer da lortzen errazagoa, barrea ala malkoa?**

Dena da zaila lortzen. Dena den erantzunik ez jasotzea da okerrera; ezer ere ez gertatzea. Jendea kontatzen dudana istorioan sartzea gustatzen zait, ondoren *feedback*-a gerta dadin. Atxagag

«Ipuinak kontatzean, ez ditut entzule bezala altzariak nahi»



EGUNKARIA

dioen moduan, barruko arrazoiak martxan jar ditzatela!

■ **Istoriok tradizionalak eta autoreenak direnean, nondik ateratzen dituzu?**

Kopiatu egiten ditut! Liburuak eta bildumak irakurritz lortzen dut dokumentaziorik gehiena, baina norbaitek kontaturikoak ere kontuan hartzen ditut. Garbi dago, Txinako ipuin bat kontatzen dudanean, ez naizela aurretik bertara joan.

■ **Zer da arrakasta ipuin kontalari batentzat?**

Arrakasta? Arrastaka ez ibiltzea! Beno, egia esan, horrek baino garrantzi handiagoa du, nire ustez, errekonozimendu edo onepena: lan bat da eta bere duintasuna dauka. Hilabetez telebistan ateratzeagatik sinadura eske etortzerik ez dut nahi. Nire lana gustuko izatea bilatzen dut.

■ **Ipuin kontalaria ez bazina, zer egingo zenuke?**

Kolpe zorrik jo gabe egon! Bizitzeko adina topatuko nuke nonbaitetik! Noizbehinka pentsatu dut horretan, baina ez diot hainbesteko garrantzirik eman. Txikitari futbolaria izan nahi nuen, baina... Begira...

erakusketa. Alkartetxean, urria osoan zehar, Patxi Marcellak bere lana izango du erakusgai. Ordutegia: Egutero, 11:00etatik 21:30era.

TAFALLA. 'Elogio al hierro. Proyecto experimental'. Jadani ikusgai dago Xabier Santxotenaren eskultura erakusketa. Azaroaren 4a arte iraungo du, Kultur Etxeko Lagar aretoan.

ZIZUR NAGUSIA. Pintura erakusketa. Kultur Etxean Celia Castaneraren pintura erakusketa antolatuta da, 28ra bitartean.

ikastaroak

ANDOAIN. Txalaparta ikastaroa. Soinu Tresna Herrikoien Eskolak txalaparta ikastarorako deialdia egiten du. Eguna zehazteko

bilera bat egingo da gaur, asteartea, 20:00etan, Olagain Musika Eskolan.

ARRASATE. Perkusio eta ahots ikastaroak. Perkusio ikastaroa urriaren 22 eta 29an izango da eta, ahotsarena, azaroaren 5, 12, 19 eta 26an eta abenduaren 3an. Ikastaroak Gazteluondo aretoan emango dira. Informazioa eta izena emateko Gazte Bulegoan.

BASAURI. Internet ikastaroa. Pozokoetxe Kultur Etxean, Internet ikastaro bat antolatuta dute azaroaren 5etik 28ra bitartean, astelehenetik ostegunera. Maila eta ordutegi desberdinak eskainiko dira, baita euskarazko talde bat ere. Izena emateko epea bihar irekitzen da, Kultur Etxean bertan (6.000 pezeta). **BERGARA.** Nutrizioari buruzko ikastaroa. Urriaren 18, 22 eta

25ean, 19:00etatik 20:30era. Gartzela zaharrean. Antolatzailea: JARDUN elkarteak. Bazkideek 2.000 pezeta eta gainontzekoek 2.500.

DONOSTIA. Idazkuntza eta itzulpengintza ikastaroa (Itzulidatz). Urriaren 18tik ekainaren 6ra. 165 orduko iraupena izango du. Astean bi egunez. **Pintura, zeramika, zinema, irratia, prensa, soinu edizioa eta Internet.** Matrikulazioa, Casares kultur etxean.

Akuarela, egur lanketa, panderoa, txalaparta eta bertsolaritza ikastaroak. Uliako auzo elkarteak antolatutak. Akuarela eta egur lanketa asteartero 16:00etan, panderoa, asteazkenetan 19:00etan, txalaparta eta bertsolaritza, larunbatero 11:00etan.

Saguesko San Antonio okindegian eta Ategorrietako jubilatuen tabernan eman daiteke izena.

EIBAR. Literatura ikastaroa. Literaturaren oinarriak eta beste hamaika bitxikeria ikasi ahal izateko ikastaroa antolatuta dute Eibarren. Ikastaroak 20 ordu iraungo ditu eta larunbat goizetan izango da, 11:00etatik 13:00etara. Hilaren 20an hasteko asmoa dute eta taldea lehenago osatzen saiatuko dira. Irakaslea Pako Aristi idazle ospetsua izango da. Izena Portalea Kultur Etxean eman behar da. Nahi duenak informazio gehiago lor dezake, 943707153 telefonoan.

IRUÑEA. Nafarroako Antzerki Eskola. Zabalik jarraitzen du izena emateko epea, San Agustin kaleko 5ean, 09:00etatik 14:00etara.

Grabatu ikastaroa. Arte Eskolak antolatuta du, 14 urtetik gorakoei zuzendua. Museoko egoitzan, asteartetik ostiralera, 10:00etatik eguerdiko 12:30era.

LEGAZPI. Argazkigintza ikastaroa. Azaroan, Legazpiko Ikatzela Elkarrekin 30 orduko ikastaroa eskainiko du. Astelehen, asteazken eta ostegunetan izango da, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara. Izena emateko epea jadanik irekita dago, Legazpiko Kultur Etxean, eta hilaren 26a izango da azken eguna.

TOLOSA. Kultur tailerreko matrikulazio kanpaina. Pintura, haurrentzat eskulanak, zeramika, balleta, dantza garaikidea, antzerkia eta egurra lantzekoak. Ikastaroaren ordutegia: 09:30etatik 15:00etara izango da.